MEMORIAS 2020

ALCER BIZKAIA

Alcer
Bizkaia

PRESENTACIÓN

En las siguientes páginas presentamos la actividad de ALCER Bizkaia en 2020, siempre desde el lugar donde nos sitúa nuestra identidad y misión, mejorar la vida de las personas con patologías renales y el acompañamiento de las familias, a través de las numerosas acciones, servicios, talleres y campañas de mentalización.

Queremos destacar de la presente memoria nuestra firme voluntad de ofrecer a las personas con enfermedad renal la oportunidad de que nos narren en primera persona la situación que están viviendo en su camino hacia la mejora de la salud y que cuenten con el apoyo de la Asociación para realizar el trayecto juntos y facilitarles el proceso de adaptación hacia su nueva situación de vida.

Detrás de cada dato hay una gran labor de organización y desarrollo de quienes han trabajado con nosotros, ayudándonos a construir otra realidad. Por esto enviamos nuestro más sincero agradecimiento a todas aquellas personas que han apoyado nuestro proyecto y participan activamente en el mismo, tanto al personal voluntariado de la entidad, siempre dispuesto a colaborar, como a profesionales sanitarios e instituciones que aportan su tiempo y fuerza para impulsar nuestras iniciativas.

ALCER BIZKAIA

¿QUIENES SOMOS?
- MISIÓN, VISIÓN Y VALORES
- JUNTA DIRECTIVA
- EQUIPO TÉCNICO

¿DONDE ESTAMOS?
- SEDE DE LA ENTIDAD
- VIVIENDA SOCIAL

SERVICIOS
- TRABAJO SOCIAL
- ASESORAMIENTO JURÍDICO
- PSICOLOGÍA
- NUTRICIÓN

ACTIVIDAD ASOCIATIVA
- DÍA MUNDIAL DLE RIÑÓN
- SEMANA DEL DONANTE
- XII JORNADA SOCIOINFORMATIVA DE ENFERMOS RENALES
- VOLUNTARIADO

OCIO
- EXCURSIÓN A CABÁRCENO
- CAMPEONATO PARCHÍS
- CONCURSO PINTXOS

COMUNICACIÓN
- REVISTA
- REDES SOCIALES
- PÁGINA WEB

CUENTAS ANUALES
- BALANCE DE INGRESOS Y GASTOS

Somos una entidad no lucrativa declarada de utilidad pública por el Gobierno Vasco, que se creó en 1977 con el objetivo de mejorar la calidad de vida del enfermo renal crónico en todos sus aspectos, fomentando la prevención e investigación de la enfermedad renal crónica, así como la sensibilización sobre la donación de órganos para trasplante.

MISIÓN

Satisfacer las necesidades actuales sin comprometer las de las generaciones futuras son prioridades esenciales para ALCER. La transparencia, la excelencia y la innovación son solo algunos de los valores que caracterizan a la Asociación.

VISIÓN

Contribuir activamente a la mejora de la calidad de vida de las personas con patologías renales y fomentar la prevención de la enfermedad renal crónica en la sociedad y la sensibilización sobre la donación de órganos para trasplante Ser referente en la defensa de los intereses del paciente renal, la prevención de la enfermedad y la promoción de la donación de órganos.

VALORES

Ser capaces de dar respuesta al reto de conseguir un desarrollo sostenible a través de todas nuestras áreas de actividad para que generaciones actuales y futuras disfrutemos de una vida mejor.

JUNTA DIRECTIVA

Belén Herrera

PRESIDENTA

Karmele Cabrera

VICEPRESIDENTA



José González

TESORERO

Mª Concepción de la Torre

SECRETARIA

Luis Alberto Cantera

VOCAL

Irene Hormaeche

VOCAL

Juana Gondán

VOCAL

Blanca Arana

VOCAL

EQUIPO TÉCNICO



Pilar Andrés

AUXILIAR ADMINISTRATIVO

Estibaliz Alcántara

AUXILIAR ADMINISTRATIVO

Cristina García del Castillo

TRABAJADORA SOCIAL

Itziar Domingo

PSICÓLOGA

Estibaliz Olabarri

NUTRICIONISTA



Ariane Soria

NUTRICIONISTA

SEDE DE LA ENTIDAD

ALCER Bizkaia desarrolla la coordinación de sus actividades y servicios en la sede sita en Plaza Haro, 1 Bajo, 48006 de Bilbao, contando para ello con un local de su propiedad con hipoteca. La entidad se encuentra dotada de todo el mobiliario de oficina, equipos informáticos, conexión a internet, fax, teléfono, además de todo el material fungible necesario para poder desarrollar todas las actividades y servicios que la Asociación ofrece.

Metro Santutxu – Salida Zabalbide

Bilbobus Autobús 13 o 48

VIVIENDA SOCIAL

El objetivo de la gestión de una vivienda social cercana al Hospital Universitario de Cruces, es dar alojamiento a las familias de los pacientes que reciben un trasplante de riñón, hígado o médula y que puedan tener dificultades de acceso y comunicación entre sus domicilios y el Hospital.

Consideramos necesaria la ejecución de este proyecto ya que los trasplantes renales y hepáticos se llevan a cabo en el Hospital Universitario de Cruces única y exclusivamente para toda la Comunidad Autónoma del País Vasco, debiéndose trasladar hasta este Centro todos los pacientes de otros puntos de Bizkaia, Álava y Guipúzcoa, así como de otras provincias del norte del Estado en casos puntuales. Esta vivienda, lleva en funcionamiento desde el mes de julio de 2014.

Durante el presente año, 36 familiares de 14 pacientes se han beneficiado de este servicio.

TRABAJO SOCIAL

El objetivo fundamental del área de Trabajo Social es el de mejorar el bienestar integral y la calidad de vida de las personas con Enfermedad Renal y sus familiares atendiendo a los problemas sociales que pueden producirse como consecuencia de la patología.

Asimismo, se vela porque el paciente conserve la autonomía personal el máximo tiempo posible, fomentando el mantenimiento de sus círculos sociales previos y facilitando la creación de nuevos apoyos.



Durante el 2020 se ha llevado a cabo un total de 217 atenciones sociales en las que se ha facilitado información en cuanto a recursos existentes y la adecuación de éstos a las particularidades de cada caso.



En los casos en que se realizan derivaciones a otros servicios de la entidad, se trabaja de manera interdisciplinar para proporcionar al paciente una atención holística.

En los casos en que se realizan derivaciones externas, se mantiene contacto con la entidad o institución a la que ha sido derivada la persona usuaria con el objetivo de realizar un seguimiento del caso.

TALLER PARA LA INSERCIÓN SOCIOLABORAL DE LAS PERSONAS CON ERC

Este taller de desarrolló durante los meses de octubre y noviembre de manera semanal (los martes).

La mayoría de las personas que acudieron a este taller respondían a un mismo perfil. Personas mayores de 50 años, a las que tras el trasplante les había sido revisada la incapacidad laboral absoluta y tras varios años fuera del mercado laboral se encontraban totalmente desorientados.

Un total de 11 personas asistieron a este taller en el que se les ayudó a elaborar un CV, una carta de presentación, se impartieron unas pequeñas clases sobre búsqueda de empleo online y a través de apps, y se hizo hincapié en la importancia del lenguaje verbal y no verbal durante las entrevistas de trabajo. Asimismo, dada la condición de personas con enfermedad crónica, se habló del reconocimiento de discapacidad y del empleo protegido.

Además de estas sesiones grupales, la trabajadora social encargada de impartir el taller, tuvo entrevistas individuales con cada una de las personas participantes a fin de conocer las particularidades de cada caso y poder orientar la búsqueda de empleo.

GESTIÓN DE DESPLAZAMIENTOS EN HEMODIÁLISIS

Por otra parte, desde la entidad, se procede a la localización y tramitación de plazas de diálisis por todo el territorio nacional y extranjero siempre que exista convenio con el país al que desea desplazarse el paciente y de acuerdo con la normativa vigente. Del mismo modo, se gestionan las reservas de plazas de hemodiálisis de los pacientes que desean desplazarse temporalmente a Bizkaia.

Dadas las restricciones de movilidad con que nos hemos encontrado a lo largo de 2020, la cifra de desplazamientos gestionados este año ha sido notablemente inferior a la de años anteriores.

Se han gestionado un total de 116 desplazamientos, de los cuales únicamente 23 han podido realizarse finalmente.

ASESORAMIENTO JURÍDICO

Desde el área de Trabajo Social, a menudo se detectan casos que precisan asesoramiento específico de carácter jurídico. Para dar respuesta a estos casos, la trabajadora social recoge las demandas y posibles vías de actuación en un informe que posteriormente remite al servicio de asesoramiento jurídico.

Así, en función del carácter y complejidad de las vías de actuación que determine el equipo de asesoramiento jurídico, se dará respuesta a la demanda de manera telefónica o mediante cita presencial.



A lo largo de 2020, el servicio de asesoramiento jurídico ha atendido un total de 23 casos. La totalidad de ellos estaban relacionados con incapacidades laborales derivadas de la Enfermedad Renal Crónica.

ATENCIÓN PSICOLÓGICA

El Servicio de Atención Psicológica está dirigido tanto a las personas afectadas por patologías renales como a sus familiares y/o acompañantes. Desde este espacio se pretende abordar el impacto de la enfermedad renal ofreciendo herramientas y estrategias que permitan la adaptación al mismo. Para ello, se facilita a los usuarios y usuarias la posibilidad de descarga emocional, y el trabajo de hábitos saludables, adherencia al tratamiento, reestructuración cognitiva, etc. Otro de los aspectos más importantes de este servicio es que propicia la psicoeducación y el acceso a la comunicación con otras personas en situaciones similares; con el objetivo de conocer mejor su enfermedad, los tratamientos y los procesos llevados a cabo para adaptarse.

Debido a la COVID-19, el servicio no sólo se ha realizado de manera presencial (añadiendo medidas que han favorecido una mayor higiene). También se han realizado sesiones telefónicas y videollamadas mediante el programa ZOOM. Además de ello, se ha reforzado el e-mail como vía de comunicación.

Durante el año 2020 se ha observado un impacto importante de la pandemia en el número de personas atendidas. Un total de 43 usuarios y usuarias han hecho uso de este servicio en 344 consultas.

Las edades de las personas usuarias del servicio oscilan entre los 29 y los 83 años.



EDAD MEDIA DE LAS PERSONAS USUARIAS

58 AÑOS

De las personas atendidas, el 33 % estaban en pre-diálisis, el 39 % en diálisis y 9 % trasplantadas. Un 15 % lo constituyeron familiares, de los cuales el 100 % fueron mujeres.



TALLER DE MEMORIA ACTIVA

En este taller se realizan actividades, fundamentalmente lúdicas, para la estimulación de las diversas funciones cognitivas (memoria, atención, percepción, razonamiento, cálculo, lenguaje,…) de forma que se favorezca una mejor adaptación a la vida diaria, además de facilitar la cohesión grupal. Aquí se incluyen actividades como la creación de "villancicos renales" para cantarlos después en los distintos hospitales y centros de diálisis.

Dada la situación sanitaria derivada de la COVID-19, el Taller de Memoria ha ido adaptándose para garantizar la mayor seguridad posible a las 23 personas que han participado durante el año. Así pues, durante los meses de marzo y abril, habiéndose detenido toda la actividad presencial en ALCER Bizkaia, se propusieron diferentes actividades y juegos mediante un grupo de whatsapp, en el que se incluyó a todas las personas asistentes.

Después de ello, tras impartirse una formación sobre el uso de la plataforma ZOOM, el taller comenzó a realizarse mediante videollamada.

A finales de año se retomó el taller de manera presencial, creando un nuevo grupo para reducir los aforos y atendiendo a todas las medidas de seguridad propuestas a cada momento. Se ofreció además la posibilidad de continuar el taller on-line a los y las residentes de otros municipios con el confinamiento perimetral.

TALLER DE ACEPTACIÓN DE LA ENFERMEDAD RENAL

Se trata de un taller que se imparte mensualmente y al que han asistido un total de 14 personas con insuficiencia renal en pre-diálisis y en diálisis. El objetivo del mismo ha sido ofrecer un espacio de confianza, donde el apoyo emocional y grupal les permita compartir con otras personas, en situaciones similares, experiencias, pensamientos y sentimientos que se derivan de las dificultades propias de la enfermedad renal. Además se ha facilitado la adquisición y uso de herramientas para el manejo del estrés y el abordaje de conflictos (técnicas de relajación, habilidades sociales,…), así como los procesos de autoconocimiento, autoaceptación y empoderamiento.

ATENCIÓN NUTRICIONAL

Las consultas de nutrición se basan en dar pautas personalizadas a la situación de cada paciente, adaptando su dieta a su historia clínica, gustos de alimentación y hábitos de estilo de vida. La metodología de las consultas consta de una primera cita de una hora en la que se recoge toda la información necesaria de cada persona (patologías y medicación, hábitos alimentarios, gustos, etc.). Se realiza una valoración de la composición corporal mediante bioimpedancia y se pactan objetivos de cara a las próximas citas. En la segunda cita, se entrega la pauta, con el menú y recetas. Las sucesivas revisiones sirven para resolver las dudas que van surgiendo, y adaptar la pauta a la evolución del paciente.

A lo largo de 2020 se ha atendido a 67 pacientes en 402 citas. Los datos en cuanto a género, edad y tratamiento son los siguientes:







¿SABES LO QUE COMES? ETIQUETADO DE ALIMENTOS

El objetivo principal de este taller fue dar información para facilitar la autonomía de las personas en el manejo de su alimentación en la Enfermedad Renal Crónica, y dotar de herramientas para fomentar unos hábitos alimentarios adecuados.

En principio estaba planteado para realizar en 3 sesiones presenciales a lo largo del año. Finalmente, con el objetivo de cumplir con las medidas de seguridad establecidas y preservar la seguridad de todos nuestros socios y socias, el 16 de septiembre se realizó una sesión doble de manera presencial, para dar cabida a todas las personas interesadas, respetando los aforos permitidos.

TALLER PARA EL DISEÑO MENÚS NAVIDEÑOS

La nutrición es una de las claves para el abordaje de la patología renal. Es fundamental mantener una alimentación acorde al estadio de la enfermedad en que se encuentra cada paciente.

Teniendo en cuenta que las navidades son fechas complicadas en lo que a la alimentación respecta debido a los excesos propios de estas festividades, desde ALCER proponemos un taller orientado específicamente al diseño de menús navideños.

Porque creemos que comer rico y sano es compatible y queremos ayudar a que quienes padecen enfermedad renal interioricen esta premisa.

Debido a las restricciones de aforo y movilidad con que nos hemos topado en las fechas planteadas para la realización de este taller, únicamente hemos podido realizarlo online, retransmitiéndolo en directo a través de nuestras redes sociales, y posteriormente publicando el video en nuestro canal de Youtube. Asimismo, hemos hecho llegar este video a nuestros socios y socias a través de Whatsapp, y hemos recogido por este mismo canal las dudas que nos han planeado los pacientes al respecto, para que la nutricionista pudiera darle respuesta a cada una de ellas.

DÍA MUNDIAL DEL RIÑÓN

La Insuficiencia Renal Crónica es una patología muy desconocida, por lo que consideramos imprescindible visibilizarla para fomentar así su prevención.

Con motivo del Día Mundial del Riñón (**12 de marzo),** ALCER Bizkaia tenía previsto realizar una serie de actividades con el objetivo de visibilizar y prevenir la enfermedad renal en la sociedad.

- Rueda de prensa informativa
- Coreografia bajo el lema “mueve los riñones”, para visibilizar la importancia de la actividad física en la prevención de la enfermedad renal.
- Toma de tensión arterial, glucosa y creatinina en colaboración con el personal de enfermería de la unidad de diálisis del Hospital de Galdakao.

Finalmente, debido a la situación sanitaria que atravesamos, nos vimos obligados a anular las actividades tal y como estaban previstas y realizamos una campaña informativa a través de las redes sociales. Empleamos Facebook e Instagram para lanzar mensajes informativos acerca de la enfermedad renal, causas, sintomatología, e importancia de adquirir unos hábitos de vida saludables.

Asimismo, publicamos en YouTube y redes sociales la coreografía preparada para este día y animamos a todo el mundo a unirse publicando su baile.

SEMANA DEL DONANTE

Cada año celebramos la Semana del Donante con el objetivo de sensibilizar a la población sobre la importancia de la donación de órganos para trasplante. Acostumbramos a situar mesas informativas en diferentes municipios de Bizkaia, desde las que realizamos la captación de nuevos donantes. Este año, las circunstancias nos han impedido llevar a cabo esta campaña de manera presencial, pero la hemos trasladado a nuestras redes sociales, obteniendo 281 solicitudes de carnet de Donante de Órganos.

XII JORNADA SOCIO-INFORMATIVA DE ENFERMOS RENALES

Desde la entidad, cada año organizamos unas conferencias socio-informativas en las que ofrecemos la oportunidad de que pacientes y familiares obtengan una información óptima de todo lo referente a su patología.

En estas conferencias abordamos de manera holística la patología renal, tratando temas que afectan tanto a pacientes como a familiares y entorno más próximo.

La Jornada se celebró el domingo 29 de noviembre en el Hotel Silken Indautxu a puerta cerrada, siendo retrasmitida en directo a través de nuestras redes sociales y YouTube.

Con el objetivo de que todas las personas que seguían la Jornada desde su casa pudieran plantear a los ponentes las dudas surgidas en relación a sus exposiciones, se facilitó un teléfono de contacto para que nos hicieran llegar las preguntas por Whatsapp.

En una primera mesa, “Mujer y Enfermedad Renal”, contamos con Sara Muñoz y Pepi Gomez, parte activa del grupo de Mujer impulsado desde Federación Nacional ALCER.

La Jornada prosiguió con la ponencia “El Abordaje de la Sexualidad en la Enfermedad Renal Crónica”, impartida por Alfredo Saborido, Sexólogo, Trabajador Social y Coordinador de ALCER Coruña.

En una tercera mesa, contamos con la intervención de la Dra. Sofia Zárraga, Jefa de sección del Servicio de Nefrología del Hospital Univesitario de Cruces, que nos habló de “Avances en Enfermedades Glomerulares”.

Para finalizar la Jornada, disfrutamos de la ponencia “Hemodiálisis Domiciliaria Portable” impartida por la Dra. Saioa Bilbao, adjunta del Servicio de Nefrología del Hospital de Galdakao. Esta ponencia fue acompañada del testimonio de Paulino Blanco, un paciente de Lugo que lleva años tratándose con esta técnica que para nosotros aún resulta novedosa.

Esta última ponencia suscitó un gran interés entre los pacientes, que nos hicieron llegar decenas de preguntas al respecto de este tratamiento.

VOLUNTARIADO

Para ALCER Bizkaia, la implicación y el compromiso de las personas voluntarias, son parte fundamental de nuestra motivación para desarrollar acciones y transmitir los objetivos a conseguir. Los programas de voluntariado están dirigidos fundamentalmente al apoyo de la atención a las personas con enfermedad renal crónica (ERC) y a sus familias, a la sensibilización e información sobre ERC, y a la gestión de la entidad; además de al fomento de la donación de órganos, y a realizar actividades de ocio y entretenimiento dirigidas a personas con ERC.

Durante el inicio del año, dichas actividades, se llevaron a cabo de manera presencial. Sin embargo, tras el estado de alarma provocado por el Coronavirus, la asociación tuvo que adaptarse sobre la marcha a la nueva situación sanitaria. Así pues, ALCER Bizkaia se vio obligada a suspender algunas de las acciones que realizaba, y ha concentrado la mayor parte de su esfuerzo en la atención y cuidado de sus socios y, por supuesto, de sus voluntarios y voluntarias. Para ello, se han realizado llamadas telefónicas periódicas y videollamadas mediante la plataforma online ZOOM. También hemos ofrecido la posibilidad de entrevistar, formar y hacer seguimiento de nuestros voluntarios y voluntarias a través de ZOOM.

EXCURSIÓN A CABÁRCENO

La actual situación sanitaria, y las restricciones derivadas de la misma, han hecho que este año sea muy diferente en cuanto a actividades de ocio respecta. Nos hemos visto obligados a cancelar todas las salidas grupales programadas, excepto la que se realizó el 29 de febrero (antes de que fuera decretado el Estado de Alarma) al Parque Natural de Cabárceno, en Cantabria.

CAMPEONATO DE PARCHÍS

Cada año ALCER Bizkaia organiza una serie de campeonatos durante el mes de noviembre. Las restricciones derivadas de la actual situación sanitaria, nos han impedido seguir adelante con la celebración de estas actividades de la manera que veníamos haciéndolo hasta el momento, pero creemos que es necesario adaptarnos a esta nueva realidad y por ello, hemos organizado un campeonato de parchís online.

Hemos creado diferentes mesas de juego a través de una aplicación. Los ganadores de cada una de las mesas han competido entre sí en una segunda ronda de la que finalmente salió el ganador.

CONCURSO DE PINTXOS

De la misma manera, hemos adaptado nuestro Concurso de Pintxos. En este concurso se valoran principalmente 3 criterios: sabor, presentación y adecuación del pintxo a las necesidades nutricionales de las personas con enfermedad renal. Dado que este año ha resultado imposible reunirnos para probar los pintxos, no se ha podido tener en cuenta el criterio del sabor. Para valorar los otros 2 criterios, hemos seguido el siguiente procedimiento:



Para valorar la presentación, hemos publicado en nuestras redes sociales las fotografías y recetas de los pintxos que han preparado las personas participantes. Las 3 fotografías con más likes han sido elegidas finalistas. Por último, nuestra nutricionista Ariane Soria, ha analizado las recetas de estas 3 propuestas y ha decidido cuál es el ganador.

CONCURSO DE DIBUJOS

Como parte del programa de ocio, y adaptándonos a las limitaciones derivadas de la crisis sanitaria, en 2020 hemos celebrado por primera vez un concurso de Dibujos Navideños.

Para ello, hemos diferenciado 2 categorías, de 0 a 11 años y de 12 en adelante.

La elección del dibujo ganador para cada una de las categorías se realizó mediante votación en redes sociales.

REVISTA

A lo largo de 2020 hemos publicado 3 ejemplares de nuestra revista “Vivir cada día – Egunero biziz”, con una tirada de 1300 ejemplares que se distribuyen a todas las personas asociadas, entidades sin ánimo de lucro e instituciones bizkainas, otras entidades ALCER, y Hospitales y Centros de Diálisis del resto de España.

REDES SOCIALES

Este año hemos hecho uso de nuestras redes sociales en mayor medida que años anteriores, ya que la crisis sanitaria derivada de la COVID-19 nos ha obligado a transformar todas nuestras campañas presenciales en campañas telemáticas puestas en marcha a través de Facebook e Instagram.

ALCER BIZKAIA

@alcerbizkaia

PAGINA WEB

En nuestra pagina web www.alcerbizkaia.org publicamos todas las cuestiones que consideramos relevantes tanto en relación con la enfermedad renal como a la prevención de otras patologías, y cuestiones sociales.

Asimismo, a lo largo de 2020 ha cobrado gran interés el apartado “Hazte Donante”, en el que se puede rellenar el formulario para solicitar la tarjeta de donante de órganos.

PENDIENTE CERRAR AÑO CONTABLE

PUBLICAREMOS ESTA INFORMACIÓN TAN PRONTO COMO NOS SEA POSIBLE

ALCER BIZKAIA

2020ko MEMORIAK

ALCER BIZKAIA

Alcer
Bizkaia

AURKEZPENA

Orri hauetan aurkezten dugu ALCER Bizkaia elkarteak 2020an izandako jarduera, betiere, gure nortasuna eta misioa kontuan hartuta: giltzurruneko gaixotasunak dituzten pertsonen bizitza hobetzea eta haien familiei laguntzea, horretarako antolatutako ekintza, zerbitzu, tailer eta mentalizazio kanpainen bitartez.

Memoria honetan azpimarratu nahi dugu borondate irmoa dugula giltzurruneko gaixotasuna duten pertsonei hitza emateko, aukera izan dezaten osasuna hobetzeko bidean bizi duten egoera kontatzeko, eta Elkartearen laguntza jaso dezaten, bizi-egoera berri horretara egokitzeko prozesua errazteko.

Datu bakoitzaren atzean, gurekin lan egin duten pertsonen antolaketa- eta garapen-lan handia dago, beste errealitate bat eraikitzen lagundu digutelarik. Horregatik, gure eskerrik beroenak gure proiektua babesten duten eta aktiboki parte hartzen duten guztiei, bai beti laguntzeko prest dauden elkarteko boluntarioei, eta bai osasun arloko eta erakundeetako profesionalei, zeintzuek euren denbora eta indarra ematen baitizkigute gure ekimenak bultzatzeko.

ALCER BIZKAIA

NORTZUK GARA?

- MISIOA, IKUSPEGIA ETA BALOREAK
- ZUZENDARITZA BATZORDEA
- LANTALDE TEKNIKOA

NON GAUDE?

- ERAKUNDEAREN EGOITZA
- ETXEBIZITZA SOZIALA

ZERBITZUAK

- GIZARTE LANA
- AHOLKULARITZA JURIDIKOA
- ARRETA PSIKOLOGIKOA
- ELIKADURA ARLOKO ARRETA

ELKARTEAREN JARDUERA

- GILTZURRUNAREN MUNDUKO EGUNA
- ORGANO-EMAILEAREN ASTEA
- GILTZURRUNEKO GAIXOEN XII. JARDUNALDI SOZIO-INFORMATZAILEA
- BOLUNTARIOTZA

AISIALDIA

- IRTENALDIA CABARCENO PARKERA
- PARTXIS TXAPELKETA
- PINTXO LEHIAKETA

KOMUNIKAZIOA

- ALDIZKARIA
- SARE SOZIALAK
- WEB ORRIA

URTEKO KONTUAK

- DIRU-SARRERA ETA GASTUEN BALANTZEA

ALCER-BIZKAIA irabazi asmorik gabeko erakunde bat da, Eusko Jaurlaritzak erabilgarritasun publikoko erakunde izendatua. 1977an sortu zen giltzurrunetako gaixo kronikoen bizi-kalitatea hobetzeko bere alderdi guztietan, giltzurrunetako gaixotasun kronikoaren prebentzioa eta hari buruzko ikerketa sustatzeko eta transplanteetarako organoen emaitzari buruz sentsibilizatzeko.

MISIOA

ALCERen lehentasuna da egungo premiak asetzea, betiere etorkizuneko belaunaldienak arriskuan jarri gabe. Elkarteak ezaugarritzat dauzka, besteak beste, gardentasuna, bikaintasuna eta berrikuntza.

IKUSPEGIA

Aktiboki parte hartzea giltzurruneko patologiak dituzten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko prozesuan, giltzurruneko gaixotasun kronikoen prebentzioa sustatzea gizartean, eta sentsibilizazio lanak egitea transplanteetarako organo dohaintzaren inguruan. Elkarteak erreferente izan nahi du giltzurruneko pazienteen interesen defentsan, gaixotasunaren prebentzioan, eta baita ere organo dohaintzaren sustapenean.

BALOREAK

Gure jarduera-eremuen bitartez erantzuna eman nahi diogu garapen sostengarri bat lortzeko erronkari, egungo eta etorkizuneko belaunaldiek bizitza hobea izan dezaten.

ZUZENDARITZA BATZORDEA

Belén Herrera

LEHENDAKARIA

Karmele Cabrera

PRESIDENTEORDEA



José González

DIRUZAINA

Mª Concepción de la Torre

IDAZKARIA

Luis Alberto Cantera

BOKALA

Irene Hormaeche

BOKALA

Juana Gondán

BOKALA

Blanca Arana

BOKALA

LANTALDE TEKNIKOA



Pilar Andrés

ADMINISTRAZIOKO LAGUNTZAILEA

Estibaliz Alcántara

ADMINISTRAZIOKO LAGUNTZAILEA

Cristina García del Castillo

GIZARTE LANGILEA

Itziar Domingo

PSIKOLOGOA

Estibaliz Olabarri

NUTRIZIONISTA



Ariane Soria

NUTRIZIONISTA

ERAKUNDEAREN EGOITZA

ALCER Bizkaiak hipotekadun lokal bat du jabetzan Haro Plazan (1 behea, 48006 Bilbo), eta egoitza horretatik koordinatzen ditu bere jarduera eta zerbitzuak. Elkarteak baditu eskaintzen dituen jarduerak eta zerbitzuak garatzeko behar dituen bulegoko altzariak, ekipo informatikoak, Internet konexioa, faxa, telefonoa, eta behar duen material suntsikor guztia ere bai.

Metro Santutxu – Salida Zabalbide

Bilbobus Autobús 13 o 48

ETXEBIZITZA SOZIALA

Etxebizitza sozial bat kudeatzen dugu Gurutzetako Unibertsitate Ospitaletik hurbil, ostatua emateko gibel edo bizkarrezur-muin transplante bat jaso duten eta etxetik ospitalera iristeko zailtasunak dituzten gaixoen senitartekoei.

Uste dugu proiektu hau oso beharrezkoa dela, izan ere giltzurrun eta gibeleko transplanteak Gurutzetako Unibertsitate Ospitalean baino ez dira egiten Euskal Autonomia Erkidego osoan, eta beraz gaixo guztiak zentro horretara eraman behar dira Bizkaitik, Arabatik eta Gipuzkoatik, eta kasu puntualetan, baita ere Estatuko iparraldeko beste probintzia batzuetatik. Etxebizitza hori martxan dago 2014ko uztailaz geroztik.

Aurten, 14 pazienteren 36 senitartekok baliatu dute zerbitzua.

GIZARTE LANA

Gizarte Laneko arloaren funtsezko helburua da giltzurruneko gaixotasunak dituzten eta beren senitartekoen ongizate integrala eta bizi-kalitatea hobetzea, laguntza eskainiz patologiaren ondorioz sor daitezkeen arazo sozialetarako.

Era berean, saiatzen gara pazienteak autonomia pertsonala mantendu dezan ahalik eta luzaroen, horretarako garrantzitsua delarik gaitza izan aurreko zirkulu sozialak mantentzea eta laguntza berriak eskaintzea.



2020an, sozietateak arreta sozialeko 217 kasu atenditu ditu: informazioa eman du eskuratu daitezkeen baliabideei buruz, eta baita ere azaldu du zer egin behar den baliabide horiek kasu bakoitzeko berezitasunei egokitzeko.



Deribazioak erakundeko beste zerbitzu batzuetara egiten diren kasuetan, diziplina arteko lana garatzen dugu pazienteari arreta holistikoa emateko.

Deribazioak kanpora egiten direnetan, harremanetan jarraitzen dugu erabiltzailea jaso duen erakunde edo instituzio horrekin kasuaren jarraipena egiteko.

GILTZURRUNEKO GAIXOTASUN KRONIKOA (GGK) DUTEN PERTSONAK GIZARTEAN ETA LAN MUNDUAN INTEGRATZEKO TAILERRA

Tailer hau astero egin zen urriko eta azaroko astearteetan.

Parte-hartzaile gehienek profil bera zuten: 50 urtetik gorako pertsonak, transplantearen ondoren lanerako erabateko ezgaitasuna berrikusita dutenak eta erabat desorientatuta daudenak urte asko lan mundutik kanpo egon ostean.

Guztira 11 pertsonak parte hartu zuten tailerrean, non laguntza eman baitzitzaien CV-a eta aurkezpen gutuna idazteko. Horrez gain, irakatsi zitzaien nola bilatu enplegua online eta aplikazio desberdinen bidez, eta bereziki azpimarratu zen ahozko eta ez-ahozko hizkeraren garrantzia lan-elkarrizketetan. Era berean, gaixotasun kronikoa duten pertsonak direnez, hizpide hartu ziren ezgaitasunaren aitortza eta enplegu babestua.

Taldeko saio horiez gain, tailerra eman zuen gizarte langileak aurrez aurreko elkarrizketak izan zituen parte-hartzaile bakoitzarekin, kasu bakoitzaren berezitasunak ezagutzeko eta enplegu bilaketa bideratzeko.

HEMODIALISIRAKO JOAN-ETORRIEN KUDEAKETA

Bestalde, ALCER Bizkaia elkarteak Estatu osoko eta atzerriko dialisi plazak aurkitzen eta tramitatzen ditu, betiere hitzarmen bat badago pazienteak joan nahi duen herrialdearekin eta bat etorriz indarrean dagoen araudiarekin. Orobat kudeatzen ditu Bizkaira aldi baterako etorri nahi duten pazienteen hemodialisi-plazen erreserbak.

2020an izan ditugun mugikortasun-murrizketen ondorioz, aurten kudeatutako joan-etorri kopurua aurreko urteetakoa baino askoz txikiagoa izan da.

Guztira 116 joan-etorri kudeatu dira, eta horietatik 23 bakarrik gauzatu ahal izan dira azkenean.

AHOLKULARITZA JURIDIKOA

Gizarte Lanaren arloan sarritan detektatzen ditugu aholkularitza juridiko espezifikoa behar duten kasuak. Kasu horiei erantzuna emateko, gizarte langileak txosten bat egiten du eskari guztiekin eta izan lezaketen konponbide posibleekin, eta gero txosten hori bidaltzen du aholkularitza juridikoko zerbitzura.

Hala, aholkularitza juridikoko zerbitzuak aztertuko du nolako konplexutasuna duten txostenean jasotako eskariek, eta, horren arabera, batzuetan telefonoz erantzungo zaio eskaria egin duenari eta bestetan hitzordu presentzial baten bidez.



2020an, aholkularitza juridikoko zerbitzuak 23 kasu atenditu ditu. Guztiek zuten zerikusia Giltzurruneko Gaixotasun Kronikoaren ondoriozko lan-ezgaitasunekin.

ARRETA PSIKOLOGIKOA

Arreta Psikologikoko Zerbitzua giltzurruneko gaixotasunak dituzten pertsonei zuzentzen zaie, baina baita ere euren senitarteko edota laguntzaileei. Espazio honen helburua da giltzurruneko gaixotasunaren inpaktua lantzea, tresnak eta estrategiak eskainiz gaixotasunari egokitzen laguntzeko. Horretarako, erabiltzaileei aukera ematen zaie emozioak askatzeko, eta baita ere sakonago lantzeko ohitura osasuntsuak, tratamenduarekiko atxikimendua eta berregituratze kognitiboa, e.a. Zerbitzu honen beste alderdi garrantzitsu bat da hezkuntza psikologikoa ahalbidetzen duela eta aukera ematen duela antzeko egoeretan dauden beste pertsona batzuekin komunikatzeko eta, beraz, baita ere hobeto ezagutzeko norbere gaixotasuna, tratamenduak eta egokitzeko prozesuak.

COVID-19aren ondorioz, zerbitzua bi modutara eman da. Bata, presentzialki, higiene aldetik beharrezko ziren neurri guztiak hartuz. Eta bestea, telefono eta bideodei (ZOOM programa) bidezko saioak eginez. Bestalde, posta elektronikoaren erabilera bultzatu da komunikaziorako tresna gisa.

2020an ikusi da pandemiak eragin handia izan duela atenditutako pertsonen kopuruan. Guztira, 43 erabiltzailek baliatu dute zerbitzua eta 344 kontsulta egin dira.

Zerbitzuko erabiltzaileen adina 29 eta 83 urte bitartekoa izan da.



ERABILTZAILEEN BATEZ BESTEKO ADINA

58 URTE

Atenditutako pertsonetatik % 33 aurre-dialisian zeuden, % 39 dialisian eta % 9 transplantea jaso duten pertsonak ziren. % 15 senitartekoak izan ziren, kasu honetan, guztiak emakumeak.



MEMORIA AKTIBORAKO TAILERRA

Tailer honetan egiten diren jarduerak ludikoak dira nagusiki, eta helburutzat dute funtzio kognitibo desberdinak (memoria, arreta, pertzepzioa, arrazonamendua, kalkulua, lengoaia…) estimulatzea, lagungarri izan daitezen eguneroko bizitzara hobeto egokitzeko eta taldea kohesionatzeko. Besteak beste, “Gabonetako giltzurrun-kantak” sortzen dira, gero ospitaleetan eta dialisi-zentroetan kantatzeko.

COVID-19ak eragindako osasun egoera dela eta, Memoria Tailerra egokitu egin behar izan da urtean zehar parte hartu duten 23 pertsonen segurtasuna ahalik eta gehien bermatzeko. Hala, martxoan eta apirilean erabat gelditu zenez ALCER Bizkaia elkartearen jarduera presentzial guztia, askotariko jarduera eta jolasak proposatu ziren parte-hartzaile guztiekin osatutako Whatsapp talde baten bidez.

Ondoren, ZOOM plataforma erabiltzen ikasteko prestakuntza-saio baten ondoren, bideo-dei bidez egin zen tailerra. Urtearen amaieran berriz hasi ziren tailer presentzialak, eta bigarren talde bat sortu zen edukiera murrizteko, betiere une bakoitzean proposatutako segurtasun-neurriak errespetatuz. Itxialdi perimetrala agindu zenean, tailerra online jarraitzeko aukera eman zitzaien beste herri batzuetan bizi diren parte-hartzaileei.

GILTZURRUNEKO GAIXOTASUNA ONARTZEKO TAILERRA

Tailer hau hilero egiten da eta giltzurruneko gaixotasuna duten (aurre-dialisikoak eta dialisikoak) 14 pertsonak parte hartzen dute bertan. Tailerraren helburua da konfiantzazko espazio terapeutiko bat eskaintzea, non laguntza emozionala eta taldeko laguntza baliagarri baitira giltzurruneko gaixotasunaren berezko zailtasunetatik eratorritako esperientziak, pentsamenduak eta sentimenduak partekatzeko antzeko egoeretan dauden beste pertsona batzuekin. Gainera, parte-hartzaileek tresnak bereganatu eta erabili dituzte estresa eta gatazkak kudeatzeko (erlaxazio teknikak, gaitasun sozialak…), bai eta norbere burua ezagutu, onartu eta ahalduntzeko prozesuetarako.

ELIKADURA ARLOKO ARRETA

Nutrizio kontsultetan paziente bakoitzaren egoeraren araberako jarraibide pertsonalizatuak ematen dira, bere dieta egokituz bere historia klinikora, elikadura-gustuetara eta bizimodu-ohituretara. Kontsulten metodologiari jarraiki, ordubeteko lehen hitzorduan pertsona bakoitzari buruzko beharrezko informazioa jasotzen da (patologiak eta medikazioa, elikadura ohiturak, gustuak, e.a.).

Gorputz-osaeraren balorazioa egiten da bioinpedantzia bidez eta hurrengo hitzorduetarako helburuak adosten dira. Bigarren hitzorduan jarraibidea, menua eta errezetak ematen dira. Hortik aurrerako hitzorduetan zalantzak argitzen dira eta jarraibideak egokitzen zaizkio pazientearen bilakaerari.

2020an 67 paziente atenditu dira 402 kontsultatan. Hauek dira datuak genero, adin eta tratamenduaren arabera:







BADAKIZU ZER JATEN DUZUN? ELIKAGAIEN ETIKETAK

Tailer honen helburu nagusia izan zen informazioa ematea Giltzurruneko Gaixotasun Kronikoa duten pertsonak autonomo izan daitezen euren elikadura kudeatzeko orduan, eta tresnak ematea elikadura ohitura egokiak sustatzeko.

Hasierako asmoa zen urtean 3 saio presentzial egitea. Azkenik, agindutako segurtasun-neurriak betetzeko eta gure bazkide guztien segurtasuna bermatzeko, saio presentzial bikoitz bat egin zen irailaren 16an, interesatu guztiek aukera izan zezaten parte hartzeko, baimendutako edukiera errespetatuz.

GABONETAKO MENUAK DISEINATZEKO TAILERRA

Nutrizioa oinarrizkoa da giltzurruneko patologiak lantzean. Funtsezkoa da paziente bakoitzaren gaixotasunaren fasea kontuan hartzea eta horren araberako elikadura sustatzea.

Badakigu Gabon sasoian zaila izaten dela elikadurako jarraibideak betetzea, ospakizunetan ohikoa baita gehiegikeriak egitea. Horregatik, ALCERek tailer bat proposatzen du, gabonetako menuak diseinatzen ikasteko.

Gure ustez, bateragarria da gauza goxo eta osasuntsuak jatea, eta giltzurruneko gaixotasuna dutenei uste hori barneratzen lagundu nahi diegu.

Edukiera eta mugikortasun murrizketen ondorioz, tailerra online egin behar izan genuen, zuzenean emitituz gure sare sozialetan, eta ondoren bideo osoa argitaratuz Youtube-n dugun kanalean. Era berean, bazkide guztiei helarazi diegu bideoa Whatsapp bidez, eta pazienteek planteatutako zalantzak ere kanal horretatik jaso genituen, nutrizionistak galdera guztiak erantzun zitzan.

GILTZURRUNAREN MUNDUKO EGUNA

Giltzurruneko Gaixotasun Kronikoa gaixotasun oso ezezaguna da, eta horregatik uste dugu funtsezkoa dela ikusgarritasuna ematea prebentzioa sustatzeko. Giltzurrunaren Munduko Egunaren karietara (**martxoak 12**), ALCER Bizkaiak hainbat jarduera zituen programatuta, gaixotasuna gizartean bisibilizatzeko eta prebenitzeko.

- Prentsaurreko informatzailea
- Koreografia bat "Mugitu giltzurrunak" lelopean, adierazteko zein garrantzitsua den jarduera fisikoa egitea giltzurruneko gaixotasuna prebenitzeko.
- Arterietako tentsioa, glukosa eta kreatinina neurtzea Galdakaoko Ospitaleko dialisi unitateko erizainen laguntzarekin.

Azkenean, bizi dugun egoera sanitarioa dela medio, bertan behera utzi behar izan genituen aurreikusitako jarduera guztiak, eta informazio-kanpaina bat egin genuen sare sozialen bidez. Facebook eta Instagram erabili genituen giltzurruneko gaixotasunari buruzko mezu informatzaileak bidaltzeko (kausak, sintomak, e.a.) eta adierazteko zein garrantzitsua den bizi-ohitura osasuntsuak izatea.

Era berean, egun horretarako prestatutako koreografia argitaratu genuen YouTube-n eta sare sozialetan, eta jendea animatu genuen ekimenarekin bat egitera bakoitzak bere dantza grabatuz eta argitaratuz.

ORGANO-EMAILEAREN ASTEA

Urtero ospatzen dugu Emailearen Astea, gizartea transplanteetarako organo dohaintzaz sentsibilizatzeko. Normalean, mahai informatzaileak jartzen ditugu Bizkaiko hainbat herritan, eta haietan atzematen ditugu emaile berriak. Aurtengo egoera dela eta, ezinezkoa izan da kanpaina hori presentzialki egitea, baina sare sozialetara eraman dugu, eta Organo Emaile txartela egiteko 281 eskaera jaso ditugu.

GILTZURRUNEKO GAIXOEN XII. JARDUNALDI SOZIO-INFORMATZAILEA

Erakundeak jardunaldi sozio-informatzaileak antolatzen ditu urtero, non patologia honi buruzko informazio onena ematen baitiegu bai pazienteei eta bai euren senitartekoei.

Hitzaldi horietan holistikoki jorratzen dugu giltzurruneko gaixotasuna, eta, pazienteei ez ezik, senitarteko eta ingurune hurbilenari ere eragiten dioten gaiak lantzen ditugu.

Jardunaldi hori azaroaren 29an (igandea) egin zen, ate itxiekin, Silken Indautxu Hotelean, eta zuzenean emititu genuen gure sare sozialetatik eta YouTube-ko kanaletik.

Horrez gain, harremanetarako telefono bat jarri genuen, jardunaldia etxetik jarraitu zuten pertsona guztiek aukera izan zezaten hitzaldiei buruzko galderak eta zalantzak helarazteko Whatsapp bidez.

Lehen mahai-ingurua “Emakumea eta Giltzurruneko Gaixotasuna” izan zen, eta bertan parte hartu zuten Sara Muñozek eta Pepi Gomezek, biak ere ALCER Federazio Nazionaletik bultzatutako Emakumearen Taldeko kide aktiboak.

Ondoren, Alfredo Saboridok (sexologoa, gizarte langilea eta ALCER Coruña elkarteko koordinatzailea) “Nola landu sexualitatea Giltzurruneko Gaixotasun Kronikoarekin” hitzaldia eskaini zuen.

Hirugarren mahai-inguruan Sofia Zárraga doktoreak (Gurutzeta Unibertsitate Ospitaleko Nefrologia Zerbitzuko sekzio-buruak) parte hartu zuen eta "Gaixotasun Glomerularren Aurrerapenei" buruz mintzatu zen.

Jardunaldia amaitzeko, Saioa Bilbao doktoreak (Galdakaoko Ospitaleko Nefrologia Zerbitzuko ondokoak) “Etxerako Hemodialisi Eramangarria” hitzaldia eskaini zuen. Horrekin batera, Lugoko Paulino Blanco pazientearen lekukotza entzun genuen, zeinak urteak baitaramatza guretzat oraindik berria den teknika honekin tratatzen.

Azken hitzaldi horrek interes handia piztu zuen pazienteen artean, dozenaka galdera helarazi zizkigutelarik tratamendu horri buruz.

BOLUNTARIOTZA

ALCER Bizkaiarentzat boluntarioen inplikazioa eta konpromisoa funtsezkoak dira, horrek bultzatzen gaitu gure ekintzak garatzera eta helburuak transmititzera. Boluntariotza programak beraizik zuzenduta daude giltzurruneko gaixotasun kronikoa (GGK) duten pertsonei eta euren familiei arreta ematera, GGKri buruzko sentsibilizazio- eta informazio-lana egitera eta erakundearen kudeaketara, eta baita ere organo dohaintza sustatzera eta GGK duten pertsonentzako aisialdi- eta entretenimendu-jarduerak egitera.

Urtearen hasieran jarduera horiek presentzialki egin ziren. Baina, koronabirusak eragindako alarma-egoera dela eta, elkarteak osasun egoera berrira egokitu behar izan zuen. Hala, ALCER Bizkaiak bertan behera utzi behar izan zituen ekintza batzuk, eta ahalegin guztia egin du bere bazkideak eta, jakina, boluntarioak atenditu eta zaintzeko. Horregatik, aldian behin telefono deiak eta bideodeiak egin ditugu onlineko ZOOM plataformaren bidez. Aukera egon da baita ere gure boluntarioei ZOOM bidez elkarrizketak egiteko, prestakuntza emateko eta jarraipena egiteko.

IRTENALDIA CABARCENO PARKERA

Egungo osasun egoera eta haren ondoriozko murrizketak direla medio, aurtengo urtea oso desberdina izan da aisialdiko jarduerei dagokienez. Bertan behera utzi behar izan ditugu programatuta geneuzkan taldeko irtenaldi guztiak, otsailaren 29an (alarma-egoera agindu baino lehen) Kantabriako Cabarceno Parke Naturalera egin genuena izan ezik.

PARTXIS TXAPELKETA

ALCER Bizkaiak hainbat txapelketa antolatzen ditu urtero azaroan. Egungo osasun egoeragatiko murrizketek ez digute utzi jarduera horiek egiten orain arte egin izan ditugun moduan, baina uste dugu egokitu egin behar dugula errealitate berri honetara, eta horregatik antolatu dugu onlineko partxis txapelketa.

Hainbat mahai-joko sortu ditugu aplikazio bat erabiliz. Mahai bakoitzeko irabazleek elkarren kontra jokatu dute txapelketako bigarren errondan, eta handik atera da garailea.

PINTXO LEHIAKETA

Era berean, gure Pintxo Lehiaketa ere egokitu dugu. Lehiaketa honetan batez ere 3 irizpide baloratzen dira: zaporea, aurkezpena eta nola egokitu den pintxoa giltzurruneko gaixotasuna duten pertsonen nutrizio-premietara. Nola aurten ezin izan garen elkartu pintxoak probatzeko, ez dugu kontuan hartu zaporea. Beste bi irizpideak baloratzeko, prozedura hau erabili dugu:



Aurkezpena baloratzeko, gure sare sozialetan argitaratu ditugu parte-hartzaileek prestatutako pintxoen argazkiak eta errezetak. *Like* gehien jaso dituzten 3 argazkiak hautatu ditugu finalista izateko.

Azkenik, Ariane Soriak, gure nutrizionistak, 3 proposamenen errezetak aztertu ditu eta berak erabaki du zein den irabazlea.

MARRAZKI LEHIAKETA

Aisialdiko programaren barruan, eta osasun-krisiaren ondoriozko murrizketatara egokitu beharrez, 2020an lehen aldiz egin dugu Gabonetako Marrazki Lehiaketa.

Bi kategoria bereizi ditugu: 0-11 urte bitartekoak eta 12 urtetik gorakoak.

Kategoria bakoitzeko marrazki irabazlea aukeratzeko, bozketa egin zen sare sozialetan.

ALDIZKARIA

2020an “Vivir cada día – Egunero biziz” aldizkariaren 3 zenbaki argitaratu ditugu 1.300 aleko tiradarekin, eta aldizkari horiek banatzen zaizkie bazkide guztiei, Bizkaiko irabazi asmorik gabeko erakunde eta instituzioei, beste ALCER erakunde batzuei eta Espainia osoko ospitale eta dialisi-zentroei.

SARE SOZIALAK

Aurten aurreko urteetan baino gehiago erabili ditugu gure sare sozialak, izan ere, COVID-19ak eragindako krisi sanitarioa dela eta, gure kanpaina presentzial guztiak telematikoki egin behar izan ditugu eta Facebook nahiz Instagram baliatu ditugu kanpaina horiek martxan jartzeko.

ALCER BIZKAIA

@alcerbizkaia

WEB ORRIA

www.alcerbizkaia.org web orrian argitaratzen ditugu garrantzitsuak iruditzen zaizkigun gai guztiak, betiere, giltzurruneko gaixotasunarekin eta beste patologia batzuen prebentzioarekin nahiz gai sozialekin lotutakoak.

Era berean, 2020an interes handia piztu du “Egin zaitez emaile” atalak, zeinetan posible baita organo-emaile txartela eskatzeko inprimakia betetzea.

KONTULARITZA-URTEA IXTEKO DAGO ORAINDIK

AHALIK ETA AZKARREN ARGITARATUKO DUGU INFORMAZIO HORI

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

B
Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO

Osakidetza

GD>IO

Fundación
ONCE

ALCER
Federación Nacional